



EBAZPEN BATERATUA LANGILERIA KUDEAKETA ZUZENDARIARENA ETA ANIZTASUNERAKO ETA INKLUSIORAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ SISTEMA INFORMATIZATUA EZARTZEN DEN LAN-KONTRATUDUN LANGILE FINKOEI, LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO BITARTEKOEI ETA MUGAGABE EZ-FINKOEI IKASTETXEEN URTEKO ESLEIPENA PARTZIALKI ERA TELEMATIKOAN EGITEKO PROZEDURA, BERRITZEGUNERA ATXIKITAKO FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL ETA HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA KATEGORIETAN.

2019ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez, Hezkuntzako sailburuarena, lanpostuaren adjudikazioa arautzen zaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta ezartzen da lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan (hemendik aurrera, Agindua).

Aginduaren III. Kapituluaren (15. artikulutik 19. artikulura), Berritzegunera atxikitako lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen artean ikastetxeak esleitzeko urteko prozedura arautzen duten arau espezifikoak jasotzen dira, eta arau horiek Xedapen Orokorrei buruzko Aginduaren I. Kapituluak (1.b), 2.2 eta 3. artikulua osatzen ditu.

Prozedura honen helburu nagusia da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dituzten ikastetxeak urtero banatzea zonako Berritzeguneetako lanpostuei atxikitako langileen artean, honako kategoria hauetan: lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialistak.

Prozesu honek langileak planifikatzeko eta kudeatzeko segidako jarduerak abiarazten ditu. Horien helburu nagusia hasten den ikasturteko matrikularen arabera hezkuntza-zerbitzua emateko beharrezkoak diren hezkuntza bereziko plazak zehaztea da, eta ikastetxeei beren jarduera gauzatzeko hezitzaile egokiak eta nahikoak ematea.

Aginduan araututako prozedura honen premisetako bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen Hitzarmen Kolektiboa da. Hitzarmen horren 14. artikuluan langile horiek artatu beharreko ikastetxeen banaketa arautzen da.

Prozedura hori modu telematikoan egiteko aukerari dagokionez, Aginduaren 19. artikulua honako hau ezartzen du: Langileak Kudeatzeko zuzendari eskudunaren eta hezkuntza-laguntzako berariazko premien gainean eskumena duen zuzendariaren ebazpen bateratuaren bidez, sistema informatizatu bat ezarri ahalko da III. Kapituluaren araututako prozedura osorik edo partzialki telematikoki burutzeko.



Horretarako, ebazpen hau ematen da ikastetxeen esleipen telematikoa sistema informatiko partzialeko parte hartzearen bidez egiten jarrai dadin, eragindako pertsonen partaidetza-baldintzak hobetzeko eta sistema arinagoa eta egokiagoa izan dadin bai hezkuntza-sistemaren beharrianetarako, bai teknologikoki aurreratua dagoen gizarte baten eskakizunetarako, aurrez ezarritako irizpideen arabera eta antzeko ezaugarriak dituzten beste jarduketak batzuk egiten diren era berean.

Horregatik guztiatik,

EBAZTEN DUGU:

Lehena.- Berritzeguneari atxikitako fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen artean urteko ikastetxeen esleipenari aplikatu beharreko araudia.

2019ko ekainaren 4ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren I. kapituluaren (1.b), 2.2 eta 3 artikulua) eta III. Kapituluaren (15-19 artikulua) araututakoa beteko da. Agindu horren bidez lanpostuaren adjudikazioa arautzen zaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta ezartzen da lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan (hemendik aurrera, Agindua).

Kapitulu horietan ezartzen dira lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen artean ikastetxeak esleitzeko urteko prozedura arautzen duten arauak, Berritzeguneari atxikitako fisioterapeuta, terapeuta okupazionala eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Bigarrena.- Ikastetxeen esleipen telematiko partzialaren prozesurako egutegia.

Aginduaren 15. artikulua arabera, ikasturte bakoitzerako eta ikasturtea hasi baino lehen, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du Berritzeguneari atxikitako fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen artean ikastetxeak esleitzeko prozeduraren hasiera agintzeko.

Ebazpenak eranskin batean jasoko ditu lanpostuak eta nahitaez parte hartu behar duten pertsonak, bakoitzaren kontratu-mota edo lan-harremana adierazita.

Era berean, ebazpen horretan ezarriko da Berritzegunean egingo den eta langileek nahitaez joan behar duten bileraren data, bai eta parte-hartzaileek ikastetxeak esleitzeko prozedura telematikoan eskabideak egiteko faseen egutegia ere.

**Hirugarrena.- Ikastetxeen esleipen telematiko partziala egiteko baldintzak.**

Aginduaren 17.2 artikuluan eta 18.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde-barruti bereko lanpostuak betetzen dituzten lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen artean ikastetxeak esleitzean, honako hauek bete beharko dira:

- a) Hezkuntzako ordezkarietzeko Hezkuntza Berrikuntzarako Lurralde Zerbitzuak ikastetxeetan egindako lanaren banaketa, hezkuntza-premia berezien aholkularitzekin lankidetzan.
- b) Ikasleei arreta emateko behar den hizkuntza-eskakizuna, ikasketak egiten dituzten ereduaren arabera.
- c) Kontratututako pertsonaren lanaldia.

Laugarrena.- Lan-egokitzapenak.**a) Berritzegunearen barne egindako egokitzapena.**

Langile finkoen ikastetxeen esleipena hasi aurretik, zonako Berritzeguneko zuzendariak ikastetxeak esleituko ditu lanpostu egokitzapena duten lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen artean, zeinek haien egokitzapenarekin bat datozen lanpostuak aukeratuko dituzte.

Nolanahi ere, langile horiek aukeratu beharko dute hurrenkera honetan:

- 1) Lehenik, aukeratu ahal izango dute ikasturte honetan zerbitzuak ematen ari diren beharra, hutsik dauden beharrak edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa edo lan lanpostu hutsagatik bitarteko lan-kontratua dutenek betetzen dituzten beharrak, betiere bat badatoz egokitzapenarekin.
- 2) Ez badago edo ez badatoz bat egokitzapenarekin, langile finkoek betetzen dituzten beharrak aukeratu ahal izango dituzte.

Nolanahi ere, ebazpen honen zortzigarren ebazpen-atalean hizkuntza-eskakizunari buruz ezarritakoa beteko da.

Berritzegune berean lanpostu-egokitzapena duen pertsona bat baino gehiago badago, langile finkoek lehentasuna izango dute lan-harreman mugagabe ez-finkoa edo lan lanpostu hutsagatik bitarteko lan-kontratua dutenekiko.

Berritzegune berean lanpostu-egokitzapena duen pertsona finko bat baino gehiago badago, irizpide hauei jarraituko zaie horien artean hautatzeko ordena ezartzeko:

- 1) Berritzegunean antzintasun handiena duenak.



- 2) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzintasun handiena duenak.
- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, sarbide-nota.
- 4) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

Irizpide horiek ere erabiliko dira (3. irizpidea salbu) Berritzegune berean lanpostu-egokitzapena duen lan-harreman mugagabe ez-finkoa edo lan lanpostu hutsagatik bitarteko lan-kontratua duen bat baino gehiago badago. Lan-kontratu motak edo harreman motak ez du inolako lehentasunik emango aipatutako langileen artean.

Lanpostua egokitu zaien langileen artean ikastetxeak esleitu ondoren, ikastetxeen esleipenari ekingo zaio.

b) Beste Berritzegune batean egokitzapena.

Lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langileen ikastetxeak esleitu ondoren, beste Berritzegune batean plaza duten baina beren bizilekuari dagokion Berritzegunean zerbitzuak emateko lanpostu-egokitzapena onartuta duten langileek ikastetxea aukeratuko dute.

Nolanahi ere, langile horiek plaza libreen artean aukeratu beharko dute beren bizilekuari dagokion Berritzeguneko lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-kontratu mugagabe ez-finkoa duten langileek ikastetxea aukeratu ondoren, baldin eta plaza libreak badaude.

Edonola ere, ebazpen honen zortzigarren puntuan hizkuntza-eskakizunari buruz aurreikusitakoa beteko da.

Berritzegune berean lanpostua egokitzeko mota hori duen pertsona bat baino gehiago badago, langile finkoek lehentasuna izango dute langile mugagabe ez-finkoen edo lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratuen aurretik.

Berritzegune berean ikastetxea aukeratu behar duen mota horretako lanpostu-egokitzapena duen pertsona finko bat baino gehiago badago, honako irizpide hauei jarraituko zaie haien artean aukeratzeko ordena ezartzeko:

- 1) Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzintasun handiena duenak.
- 2) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, sarbide-nota.
- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

Irizpide horiek berak (2. irizpidea izan ezik) aplikatuko dira lan-harreman mugagabe ez-finkoa edo lanpostu hutsa betetzeko bitarteko lan-kontratua duen pertsona bat baino

gehiago dagoenean, langile horien arteko kontratu edo lan-harreman motak inolako lehentasunik eman gabe.

Plaza daukanaz bestelako Berritzegunean ikastetxea aukeratzen duten langileak beren jatorrizko lanpostura eta dotaziora atxikita daudela ulertuko da ondorio guztietarako.

Bosgarrena.- Ikastetxeak adostasunez esleitzea.

Aginduaren 17.3 artikuluan eta 18.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, esleipena, ahal dela, kategoria eta lurralde-barruti bereko lanpostuak betetzen dituztenen artean egin behar da.

Hala ere, aurten, 2022ko abenduan hezkuntzako langile lan-kontratudunentzat hasitako egonkortze-prozesuaren ondorioz, zaila da adostasun-bilerak egitea, egonkortze-prozesu horren ondoren Berritzegunetik aldatzen diren langileen kopurua handia delako eta kolektibotik kanpo datozen eta Hezkuntza Sailarentzat inoiz lan egin ez duten edo dagoeneko bertan lan egiten ez duten pertsonak daudelako.

Horregatik, ikastetxeak telematikoki esleitzeko prozesua zuzenean egitea aurreikusten da, Aginduaren 17.3 eta 4 artikuluan aurreikusitako lehentasun- eta berdinketa hausteko irizpideen arabera, 18.1 artikuluekin lotuta.

Seigarrena.- Ikastetxeen esleipen telematikoaosatzen duten faseak.

6.1 LAN-KONTRATU FINKOA DUTEN LANGILEEI DAGOKIENEZ:

6.1.1 EGONKORTZE-FASEA.

- Parte-hartzaileak:

Fase honetan, ikasturte honetan lan egiten duen ikastetxean egonkortu nahi duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietako Berritzeguneko langile finko guztiek parte hartu beharko dute. Kanpoan geratzen dira erretiro partziala hartu duten langile finkoak.

Egonkortze-fasean parte hartu nahi ez duenak ez du eskaerarik aurkeztu behar fase honetan.

- Eskaera:

Behin aplikazioan sartuta, ikasturte honetan zerbitzuak ematen dituzten ikastetxean ikasturte berrirako dauden beharrak bistaratu ahal izango dituzte, honako hauek zehaztuta: plaza zenbakia, ikastetxea, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna, ikasgela mota, ordutegia eta ezaugarri bereziak.

Eskaeran, langileek beren lehentasunen arabera zerrendatu beharko dituzte plazak.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean datorren ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez badituzte, eskatutako beharrak bakarrik hartuko dira kontuan.



Hau da, aplikazio informatikoak ez du nahitaezko eskaerarik egingo, eta eskatutako beharrei baino ez zaie erreparatuko.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean hurrengo ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez badira, eta zerrendatutako beharretako bat ere esleitzen ez bazaie, ez da langile kanporatutzat edo lekualdatutzat hartuko, eta bere borondatez ikastetxez aldatu nahi duten langileek parte hartzen duten fasean parte hartu beharko dute.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean hurrengo ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen badira, eta ez bazaie horietako bat ere esleitzen, kanporatutako edo lekualdatutako langiletzat hartuko da, eta kanporatutako edo lekualdatutako langileek parte hartzen duten fasean parte hartu beharko dute.

Egiaztatutako HLEA hizkuntza-eskakizuneko lanpostu bat betetzen duten langileek datorren ikasturterako aurten zerbitzuak ematen dituzten ikastetxean dauden behar guztiak zerrendatu dituztela ulertuko da, baldin eta eskabideari HLEA eskakizuna duten behar guztiak gehitu badizkiote.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean hurrengo ikasturterako behar bakarra badago, behar hori eskaeran gehitu beharko du.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean hurrengo ikasturterako ez badago beharrik, edo, halakorik balego, lan-egokitzapena duten langileei esleitu bazaie, ez du parte hartuko egonkortze-fase horretan, eta kanporatutako edo lekualdatutako langiletzat hartuko da.

-Irizpideak:

Ikastetxeak esleitzeko irizpideak honako hauek izango dira, Aginduaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera:

- 1) Aurreko ikasturtean gaztelerako behar batean lan egin zutenek.
- 2) Ikastetxean antzinasun handiena duenak.
- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, eta biek ikastetxean egonkortu nahi badute, lehentasuna izango du azken bi ikasturteetan ikasgela egonkorretan zerbitzuak eman dituenak.
- 4) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Berritzegunean antzinasun handiena duenak.
- 5) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzinasun handiena duenak.
- 6) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, sarbide-nota.



- 7) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

-Ebazpenak.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez –Irakaslegunea ingurunean eta Hezkuntza Saileko webgunean argitaratuko da– behin-behinean esleituko zaizkie ikastetxeak fase honetan parte hartu dutenei.

Ebazpen horren aurka, erreklamazioak aurkez daitezke Irakaslegunea ingurunean eskuragarri dagoen aplikazio elektronikoaren bidez, <http://www.irakasle.eus> helbidetik sartuta.

Erreklamazioak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak baietsitako eta ezetsitako erreklamazioen inguruko ebazpena emango du eta modu berean argitaratuko da.

6.1.2 EZ EGONKORTZEKO FASEA.

Ez egonkortzeko fase honek hiru azpifase izango ditu:

- 6.1.2.a) Dagoeneko beharrik ez duten langileak (kanporatuak edo lekualdatuak).
- 6.1.2.b) Beren borondatez ikastetxez aldatu nahi duten langileak.
- 6.1.2.c) Berritzegunean barneratutako langile finkoak.

Azpifase horietako bakoitzean eskabideak aurkezteko epea berbera izango bada ere, 6.1.2.a) faseko parte-hartzaileek lehentasuna izango dute 6.1.2.b) faseko parte-hartzaileen aurrean, eta 6.1.2.b) faseko parte-hartzaileek lehentasuna izango dute 6.1.2.c) faseko parte-hartzaileen aurrean, eta azpifase bakoitzaren emaitzak ondorioak izango ditu hurrengoetan.

Hiru azpifaseetako eskabideak aurkezteko epeak bat datozenez, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bakar baten bidez azpifase horietan parte hartzen duten langileei ikastetxeak esleituko zaizkie behin-behinean. Ebazpen hori Irakaslegunean eta Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka erreklamazioak aurkez daitezke Irakaslegunean eskuragarri dagoen aplikazio informatikoaren bidez. Aplikazio horretara <http://www.irakasle.eus> helbidetik sar daiteke.

Erreklamazioak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpen bakarra emango du hiru azpifaseetarako, baietsitako eta ezetsitako erreklamazioei buruz ebazteko.

Fase bakoitzari aplikatu beharreko arauak:

6.1.2.A) DAGOENeko BEHARRIK EZ DUTEN LANGILEAK (KANPORATUAK EDO LEKUALDATUAK):-Parte-hartzaileak:

Fase honetan parte hartu beharko dute fisioterapeuta, terapeuta-okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietako Berritzeguneko langile finko guztiek, baldin eta ikasturte honetan zerbitzuak ematen dituen ikastetxean egonkortu nahi izan badira eta ezin izan badute, beharrak desagertu direlako edo lan-egokitzapena duten langileek lekualdatu dietelako.

Hau da, langile kanporatutzat edo lekualdatutzat joko da egonkortze-fasean (6.1.1 fasea) plaza guztiak zerrendatu dituen eta, hala ere, plazarik lortu ez duena.

Halaber, ikasturte honetan zerbitzuak ematen dituen ikastetxean ez dagoelako beharrik egonkortze-fasean parte hartu ezin izan duten langile guztiak ere kanporatutzat edo lekualdatutzat joko dira.

-Eskaera:

Kanporatutzat edo lekualdatutzat jotako langileek, fase honetan eskabidea aurkeztuko dute.

Atxikita dagoen Berritzegunean dauden behar libre guztiak aukeratu ahal izango ditu, egonkortze-fasearen ondoren (6.1.1 fasea). Behar horien plaza zenbakia, ikastetxea, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna, gela mota, ordutegia eta ezaugarri bereziak zehaztuta egongo dira.

Eskabidean, langileek atxikita dauden Berritzeguneko beharrak beren lehentasunen arabera zerrendatu behar dituzte. Eskabidean, baldintzak betetzen dituzten behar libre guztiak zerrendatu beharko dituzte.

Fase honetan parte hartzen ez badu eta kanporatu edo lekualdatu izaera badauka, sistemak nahitaezko eskaera sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

Atxikita dagoen Berritzegunean datorren ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez baditu, nahitaezko eskaera bat sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera eta zerrendatutako azken beharraren ondoren. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

-Irizpideak:

Ikastetxeak esleitzeko irizpideak honako hauek izango dira, Aginduaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera:

- 1) Aurreko ikasturtean gaztelerako behar batean lan egin zutenek.

- 2) Lehentasuna izango du azken bi ikasturteetan ikasgela egonkorretan zerbitzuak eman dituenak.
- 3) Berritzegunean antzinasun handiena duenak.
- 4) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzinasun handiena duenak.
- 5) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, sarbide-nota.
- 6) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

6.1.2.B) BEREN BORONDATEZ IKASTETXEZ ALDATU NAHI DUTEN LANGILEAK.

-Parte-hartzaileak:

Fase honetan parte hartu beharko dute beren borondatez ikasturte honetan lan egiten duen ikastetxea aldatu nahi duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietako Berritzeguneko langile finko guztiek. Kanpoan geratzen dira erretiro partziala hartu duten langile finkoak.

Hau da, egonkortze-fasean (6.1.1.) eta kanporatuen edo lekualdatuen-fasean (6.1.2.a) parte hartu ez duten langile guztiak ikastetxez aldatu nahi duten langiletzat hartuko dira.

Era berean, egonkortze-fasean (6.1.1) parte hartu arren plaza guztiak zerrendatu ez dituzten langile finkoak beren borondatez ikastetxez aldatu nahi dituzten langiletzat hartuko dira.

-Eskaera:

Beren borondatez ikastetxez aldatu nahi duten parte-hartzaileak fase honetan sartuko dira eskabidea aurkeztera.

Atxikita dagoen Berritzegunean dauden behar libre guztiak aukeratu ahal izango ditu, kanporatutako edo lekualdatutako langileen fasearen ondoren (6.1.2.a fasea). Behar horien plaza zenbakia, ikastetxea, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna, gela mota, ordutegia eta ezaugarri bereziak zehaztuta egongo dira.

Aurrekoa gorabehera, eskabideak aurkezteko epea 6.1.2.a) azpifaserako epe bera denez, ez du jakingo zein lanpostu geratu diren libre 6.1.2.a) fasean eskaera egiten duten unean.

Eskabidean, langileek atxikita dauden Berritzeguneko beharrak beren lehentasunen arabera zerrendatu behar dituzte. Eskabidean, baldintzak betetzen dituzten behar libre guztiak zerrendatu beharko dituzte.



Fase honetan parte hartzen ez badu, sistemak nahitaezko eskaera sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

Atxikita dagoen Berritzegunean datorren ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez baditu, nahitaezko eskaera bat sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera eta zerrendatutako azken beharraren ondoren. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

-Irizpideak:

Ikastetxeak esleitzeko irizpideak honako hauek izango dira, Aginduaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera:

- 1) Aurreko ikasturtean gaztelerako behar batean lan egin zutenek.
- 2) Ikastetxean antzinasun handiena duenak.
- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du azken bi ikasturteetan ikasgela egonkorretan zerbitzuak eman dituenak.
- 4) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Berritzegunean antzinasun handiena duenak.
- 5) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzinasun handiena duenak.
- 6) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, sarbide-nota.
- 7) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

6.1.2.C) BERRITZEGUNEAN BARNERATUTAKO LANGILE FINKOAK:

-Parte hartzaileak:

Fase honetan parte hartu beharko dute fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan Berritzegune horretan lehen aldiz sartutako langile finko guztiek. Kanpoan geratzen dira erretiro partziala hartu duten langile finkoak.

-Eskaera:

Berritzegunean lehen aldiz sartutako langile finkoek fase honetan eskabidea aurkeztuko dute.

Atxikita dagoen Berritzegunean dauden behar libreak aukeratu ahal izango dituzte, beren borondatez ikastetxez aldatu nahi duten langileen fasearen ondoren (6.1.2.b

fasea). Behar horien plaza zenbakia, ikastetxea, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna, gela mota, ordutegia eta ezaugarri bereziak zehaztuta egongo dira.

Aurrekoa gorabehera, eskabideak aurkezteko epea 6.1.2.b) azpifaserako epe bera denez, ez du jakingo zer lanpostu geratu diren libre 6.1.2.b) fasean eskaera egiten duten unean.

Eskabidean, langileek atxikita dauden Berritzeguneko beharrak beren lehentasunen arabera zerrendatu behar dituzte. Eskabidean, baldintzak betetzen dituzten behar libre guztiak zerrendatu beharko dituzte.

Fase honetan parte hartzen ez badu, sistemak nahitaezko eskaera sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

Atxikita dagoen Berritzegunean datorren ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez baditu, nahitaezko eskaera bat sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera eta zerrendatutako azken beharraren ondoren. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

-Irizpideak:

Ikastetxeak esleitzeko irizpideak honako hauek izango dira, Aginduaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera:

- 1) Aurreko ikasturtean gaztelerako behar batean lan egin zutenek.
- 2) Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzintasun handiena duenak.
- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, sarbide-nota.
- 4) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

6.2 LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO BITARTEKO LAN-KONTRATUA EDO LAN-HARREMAN MUGAGABE EZ-FINKOA DUTEN LANGILEEI DAGOKIENEZ.

Ikastetxean esleipen telematikoa egingo da, fase hauen arabera:

6.2.1 EGONKORTZE-FASEA.

- Parte-hartzaileak:

Fase honetan, ikasturte honetan lan egiten duten ikastetxean egonkortu nahi duten Berritzeguneko fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietako lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten langile guztiek parte hartu beharko dute.

Egonkortze-fasean parte hartu nahi ez duenak ez du eskaerarik aurkeztu behar fase honetan.

- Eskaera:

Behin aplikazioan sartuta, ikasturte honetan zerbitzuak ematen dituzten ikastetxean ikasturte berrirako dauden beharrak bistaratu ahal izango dituzte, Berritzegunean barneratutako langile finkoen fasea (6.1.2.c) eta gero. Behar horien plaza zenbakia, ikastetxea, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna, ikasgela mota, ordutegia eta ezaugarri bereziak zehaztuta egongo dira.

Eskaeran, langileek beren lehentasunen arabera zerrendatu beharko dituzte plazak.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean datorren ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez badituzte, eskatutako beharrak bakarrik hartuko dira kontuan. Hau da, aplikazio informatikoak ez du nahitaezko eskaerarik egingo, eta eskatutako beharrei baino ez zaie erreparatuko.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean hurrengo ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez badira, eta zerrendatutako beharretako bat ere esleitzen ez bazaie, ez dira langile kanporatutzat edo lekualdatutzat hartuko, eta bere borondatez ikastetxez aldatu nahi duten langileek parte hartzen duten fasean parte hartu beharko dute.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean hurrengo ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen badira, eta ez bazaie horietako bat ere esleitzen, kanporatutako edo lekualdatutako langiletzat hartuko dira, eta kanporatutako edo lekualdatutako langileek parte hartzen duten fasean parte hartu beharko dute.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean hurrengo ikasturterako behar bakarra badago, behar hori eskaeran gehitu beharko du.

Aurten zerbitzuak ematen dituen ikastetxean hurrengo ikasturterako ez badago beharrik, edo, halakorik balego, langile finkoei edo lan-egokitzapena duten langileei esleitu bazaie, ez du parte hartuko egonkortze-fase horretan, eta kanporatutako edo lekualdatutako langiletzat hartuko da.

-Irizpideak:

Ikastetxeak esleitzeko irizpideak honako hauek izango dira, Aginduaren 17. eta 18. artikuluetan ezarritakoaren arabera:

- 1) Ikastetxean antzintasun handiena duenak.
- 2) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, eta biek ikastetxean egonkortu nahi badute, lehentasuna izango du azken bi ikasturteetan ikasgela egonkorretan zerbitzuak eman dituenak.



- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Berritzegunean antzinasun handiena izatea.
- 4) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzinasun handiena duenak.
- 5) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

-Ebazpenak.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez –Irakaslegunea ingurunean eta Hezkuntza Saileko webgunean argitaratuko da– behin-behinean esleituko zaizkie ikastetxeak fase honetan parte hartu dutenei.

Ebazpen horren aurka, erreklamazioak aurkez daitezke Irakaslegunea ingurunean eskuragarri dagoen aplikazio elektronikoaren bidez, <http://www.irakasle.eus> helbidetik sartuta.

Erreklamazioak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak baietsitako eta ezetsitako erreklamazioen inguruko ebazpena emango du eta modu berean argitaratuko da.

6.2.2 EZ EGONKORTZEKO FASEA.

Ez egonkortzeko fase honek bi azpifase izango ditu:

6.2.2.a) Dagoeneko beharrik ez duten langileak (kanporatuak edo lekualdatuak).

6.2.2.b) Beren borondatez ikastetxez aldatu nahi duten langileak.

Azpifase horietako bakoitzean eskabideak aurkezteko epea berbera izango bada ere, 6.2.2.a) faseko parte-hartzaileek lehentasuna izango dute 6.2.2.b) faseko parte-hartzaileen aurrean, eta 6.2.2.a) faseko emaitzak ondorioak izango ditu 6.2.2.b) fasean.

Bi azpifaseetako eskabideak aurkezteko epeak bat datozenez, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bakar baten bidez azpifase horietan parte hartzen duten langileei ikastetxeak esleituko zaizkie behin-behinean. Ebazpen hori Irakaslegunean eta Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka erreklamazioak aurkez daitezke Irakaslegunean eskuragarri dagoen aplikazio informatikoaren bidez. Aplikazio horretara <http://www.irakasle.eus> helbidetik sar daiteke.

Erreklamazioak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpen bakarra emango du bi azpifaseetarako, baietsitako eta ezetsitako erreklamazioei buruz ebazteko.

Fase bakoitzari aplikatu beharreko arauak:

6.2.2.A) DAGOENEO BEHARRIK EZ DUTEN LANGILEAK (KANPORATUAK EDO LEKUALDATUAK).

-Parte-hartzaileak:

Fase honetan parte hartu beharko dute Berritzeguneko fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietako lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabeko lan-kontratua duten langile guztiek, baldin eta ikasturte honetan zerbitzuak ematen dituzten ikastetxean egonkortu nahi izan badute, eta ezin izan badute beharrak desagertu direlako edo finko batek edo lan-egokitzapena duen batek lekualdatu dielako.

Hau da, langile kanporatutzat edo lekualdatutako langiletzat joko dira egonkortze-fasean (6.2.1 fasea) plaza guztiak zerrendatu dituztenak eta, hala ere, plazarik lortu ez dutenak.

Halaber, Ikasturte honetan zerbitzuak ematen dituen ikastetxean ez dagoelako beharrik egonkortze-fasean parte hartu ezin izan duten langile guztiak ere kanporatutzat edo lekualdatutzat joko dira.

-Eskaera:

Kanporatutzat edo lekualdatutzat jotako langileek, fase honetan, eskabidea aurkeztuko dute.

Atxikita dagoen Berritzegunean dauden behar libre guztiak aukeratu ahal izango ditu, egonkortze-fasearen ondoren (6.2.1 fasea). Behar horien plaza zenbakia, ikastetxea, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna, gela mota, ordutegia eta ezaugarri bereziak zehaztuta egongo dira.

Eskabidean, langileek atxikita dauden Berritzeguneko beharrak beren lehentasunen arabera zerrendatu behar dituzte. Eskabidean, baldintzak betetzen dituzten behar libre guztiak zerrendatu beharko dituzte.

Fase honetan parte hartzen ez badu eta kanporatu edo lekualdatu izaera badauka, sistemak nahitaezko eskaera sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

Atxikita dagoen Berritzegunean datorren ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez baditu, nahitaezko eskaera bat sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera eta zerrendatutako azken beharraren ondoren. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

-Irizpideak:

Ikastetxeak esleitzeko irizpideak honako hauek izango dira, Aginduarien 17. eta 18. artikuluetan ezarritakoaren arabera:

- 1) Lehentasuna izango du azken bi ikasturteetan ikasgela egonkorretan zerbitzuak eman dituenak.
- 2) Berritzegunean antzinasun handiena duenak.
- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzinasun handiena duenak.
- 4) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

6.2.2.B) BEREN BORONDATEZ IKASTETXEZ ALDATU NAHI DUTEN LANGILEAK:

- Parte-hartzaileak:

Fase honetan parte hartu beharko dute beren borondatez ikasturte honetan lan egiten duen ikastetxea aldatu nahi duten Berritzeguneko fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietako lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabea duten langile guztiek.

Hau da, beren borondatez ikastetxez aldatu nahi duten langiletzat hartuko dira egonkortze-fasean (6.2.1.) edo kanporatuen edo lekualdatuen fasean (6.2.2.a) parte hartu ez duten guztiak.

Era berean, egonkortze-fasean (6.2.1) parte hartu arren plaza guztiak zerrendatu ez dituzten lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabea duten langileak beren borondatez ikastetxea aldatu nahi duten langiletzat hartuko dira.

-Eskaera:

Beren borondatez ikastetxez aldatu nahi duten parte-hartzaileek fase honetan sartuko dira eskabidea aurkeztera.

Atxikita dagoen Berritzegunean dauden behar libreak aukeratu ahal izango dituzte, dagoeneko beharrik ez duten langileen fasearen ondoren (6.2.2.a fasea). Behar horien plaza zenbakia, ikastetxea, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna, gela mota, ordutegia eta ezaugarri bereziak zehaztuta egongo dira.

Aurrekoa gorabehera, eskabideak aurkezteko epea 6.2.2.a) azpifaserako epe bera denez, ez du jakingo zer lanpostu geratu diren libre 6.2.2.a) fasean eskaera egiten duten unean.

Eskabidean, langileek atxikita dauden Berritzeguneko beharrak beren lehentasunen arabera zerrendatu behar dituzte. Eskabidean, baldintzak betetzen dituzten behar libre guztiak zerrendatu beharko dituzte.

Fase honetan parte hartzen ez badu, sistemak nahitaezko eskaera sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

Atxikita dagoen Berritzegunean datorren ikasturterako dauden behar guztiak zerrendatzen ez baditu, nahitaezko eskaera bat sortuko dio, argitaratutako plaza-ordenaren arabera eta zerrendatutako azken beharraren ondoren. Langileek lanaldia eta hizkuntza-eskakizuna betetzen dituzten lanpostuetarako bakarrik sortuko da eskabidea.

-Irizpideak:

Ikastetxeak esleitzeko irizpideak honako hauek izango dira, Aginduen 17. eta 18. artikuluetan ezarritakoaren arabera:

- 1) Ikastetxean antzinasun handiena duenak.
- 2) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du azken bi ikasturteetan ikasgela egonkorretan zerbitzuak eman dituenak.
- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Berritzegunean antzinasun handiena duenak.
- 4) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzinasun handiena duenak.
- 5) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako urtero ezartzen den letraren hurrenkeran.

Zazpigarrena.- Eskabide elektronikoa.

7.1 Eskabide elektronikoa.

- 1.- Eskaera beteko da prozedura abiarazteko ebazpenak adierazten duen epean.
- 2.- Eskabidea formalizatuko helbide honetan eskabide elektronikoa eginez: <http://www.irakasle.eus>. Identifikatzeko, erabiltzailea eta pasahitza erabiliko dira, eta, hori ezean, NAN zenbakiaren bidez alta eman behako da. Sartzeko pasahitza gogoratzen ez bada, aipatu helbidean hori berreskuratzeko bidea aurki daiteke.
- 3.- Eskatzailearen identitatea egiaztatu egingo da, datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasota dago.

4.- Aplikazioan lehen aldiz sartzean, eskabideari alta emango zaio, eta parte-hartzaile bakoitzak bere identitate-datuak eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsultatu ahal izango ditu.

7.2. Eskabidea aldatzea eta ixtea.

1.- Eskabideari alta eman ondoren, irekita egongo da eta edozein unetan alda daiteke, aurkezteko epea zabalik den artean. Sartutako datuak zirriborro-formatuan inprima daitezke.

2.- Eskabidea automatikoki itxiko da epea amaitutakoan. Horrela, ordura arte grabatu dena hartuko da kontuan.

3.- Eskabidea itxi ondoren, ezingo da inolako aldaketarik egin, eta parte-hartzaile bakoitzak inprimaki bat lor dezake erregistratutako aukera eta eskaerekin.

7.3. Eskaerak balioestea.

1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, sistemak sartutako datuak egiaztatuko ditu, eta, hala badagokio, ez ditu onartuko parte-hartzaileek baldintzaren bat betetzen ez duten eskaerak.

2.- Era berean, ez dira onartuko elementu inkoherenteak dituzten eskaerak, ez eta deialdikoak ez diren beharren edo parte-hartzaileak eskatu ezin dituen beharren eskaerak ere.

Zortzigarrena.- Ikastetxeen esleipen telematikorako irizpideak.

1.- Beharrak Agindua III. Kapituluaren (15. artikulutik 19. artikulura) aurreikusitako irizpideen arabera esleitu dira, zeinak aurreko ataletan fase bakoitzerako zehaztu diren.

2.- Pertsona bakoitzari, parte hartzen duen fasean, bere eskabidea osatzen dutenetatik lehenengo behar libre eta baliaduna esleitu zaio, betiere lanaldiaren eta hizkuntza-eskakizunaren baldintzak betetzen baditu. Eskabidean, kontuan hartuko dira bai borondatezko eskaerak, bai eta, bere kasuan, nahitaezko eskaerak ere.

3.- Antzinasun handiena Berritzegune horretako eremuan datzan berdinketa hausteko irizpideari dagokionez, esleipenean parte hartzen duen Berritzegunean abuztuaren 31 baino lehen etengabe prestatutako zerbitzuak zenbatuko dira. Hau da, Berritzegunearen aldaketa zerbitzu horien zenbaketaren amaiera dakar.

Aurrekoa gorabehera, Arabako lurraldean Berritzegunea 2017ra arte ez zenez bi Berritzegunetan banatu, Berritzegunearen barrutian antzinasun handiena 2019/20, 2020/21 y 2021/22 ikasturtean erabilitako zenbaketaren arabera ulertuko da, hau da, Berritzeguneak Arabako lurraldean abuztuaren 31 baino lehenagoko zerbitzuak hartuta.

4.- Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan antzinasun handienez datzan irizpideari dagokionez, jasota uzten da Sail honentzako dagokion kategorian prestatutako

zerbitzuak zenbatzen direla. Hau da, ez dira ez ikastetxe pribatuetan eta ez beste administrazio publikoen menpe dauden ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak ere kontutan hartzen. Langile finkoen kasuan, lan-harreman horretara sarrera eman zion LEPetik zenbatuko da.

5.– Hizkuntza-eskakizunari dagokionez:

-Langile finkoei dagokienez:

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duen lanpostu batean daudenak derrigortasun-datarik gabeko 1. hizkuntza-eskakizuneko beharrak eskuratuko dituzte.

HLEA hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu batean daudenek HLEA hizkuntza-eskakizuneko beharrak eskuratuko dituzte. Derrigortasun-datarik gabeko 1. hizkuntza-eskakizuneko beharrak ere eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta Berritzeguneko eremuan dauden lanpostuen kopurua dela eta, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenen finkoentzako, eta bere kasuan, gaztelerazko lanpostuetan mugagabeak deklaratu diren lan-legepeko langileentzako eta lanpostu hutsak betetzen dituzten langileentzako, plazen esleipena bermatuta geratuz gero.

-Mugagabe ez-finkoei edo lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua dutenei dagokienez:

Hizkuntza-eskakizuna ez duten lanpostua betetzen daudenek 1. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigortasun-datarik gabeko beharrak eskuratuko dituzte.

HLEA hizkuntza-eskakizuna duten lanpostua betetzen daudenek bakarrik HLEA hizkuntza-eskakizuna duten beharretarako sarrera izango dute.

Bederatzigarrena.- Ikastetxeak esleitzeko behin betiko ebazpena.

Ikastetxeak esleitzeko prozesuaren behin betiko ebazpena Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez emango da, fase guztiak amaitzen direnean, eta Hezigunean argitaratuko da.

Hamargarrena.- Ondorioak eta kontratuan eraginak.

Esleitutako plazen esleipenari ezin zaio uko egin.

Ikasturte berrian ikasturte honetan lan egiten duten ikastetxea ez den beste batean zerbitzuak emango dituzten langileek ikastetxearen kontratu-berritze bat sinatu beharko dute.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuaren aurrean, hilabeteko



epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz.

LANGILERIA KUDEAKETA ZUZENDARIA**ANIZTASUNERAKO ETA INKLUSIORAKO
ZUZENDARIA****UNAI NIETO MARIJUAN****MIKEL JUARISTI IZAGUIRRE**